

Donostikoak	1.000	peseta
Bilboko Udalaren aurrezki- kutzak	500	»
Len gelditzen diranak	7.014	»

Guzira noski. . . . 32.014 peseta

Arlo au ondo erabili ondoren, erabaki da: sorospide geyago baldin ezpadator, batzaraldiak gutxitzea, orela beste beartasun batzuetarako diru geyago izan dedin.

4. Aita Intzak *margoz* itz egin du ta margo-mota askoren izenak dakartzki : Napañoan bilduak dira.

5. Kanpion jaunak jaraitu du bere lan edera irakurtzen : *El vascuence y el antiguo egipcio*.

6. Euskaltzaindiak erabaki du : Bahr jaunari, osatu duen *Erizkizundi* bakoitzagatik 6 peseta ematea. 60 bete ditu ta beaz 360 peseta emango zaizkio.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzita otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Ilbeltza'ren 25'an.

Aurreko batzaraldian aipatu diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue jauna maipuru dutela.

1. Azkue jaunak bere lan eder *Morfología* irakuri du.

2. Euskaltzaindiak lendik erabakia dauka euskaltzain maite Domingo Agirre jaun zanaren olerkiak

argitaratzea. Olerki oiek eskatu zitzaizkion Etxegarai jaunari ta beriz eskatu bear zaizkio, onen erantzupena ikusi-ta zerbait erabaki dedin.

3. Erabaki du Euskaltzaindiak auxe : Aita Olabide aspaldi batzañalditara ez datoñen ezkeron beroni adierazi, atsekabez euskaltzain guziok nabaitzen degula bere utsa.

4. Ezkutitzak. Irakuñi dira : Schuchardt, Etxegarai ta Narbarte'ko Udalarena.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Otsaiñaren 28'an.

Batzañaldi ontan emen aipatzen diran euskaltzainiak bildu dira: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Altube, Eguskitza ta Intzagarai; urgazletatik batez.

1. Azkue jaunak adierazten du: Bilboko Udal-Auñezki-Kutzak 500 peseta emango dizkiola sorospidetzat Euskaltzaindiari: Gazteizko Udal-Auñezki-Kutzak 150 peseta: Gipuzkoako Aldundi-Auñezki-Kutzak 1.000. Donostiko Udalekoak ez duela ezer emango erantzun du. Bizkaiko Aldundi-Kutzari 2.000 peseta eskatu zaizkio ta oraindik erantzupenik ez da. Napañ-oakoak erantzun du oraindik asi beñia dala bere arasoan ta lenbizikotz beintzat ezin ezer eman lezakela. Atsegiñez entzun dute beste euskaltzainiak auxe ta sorospidea dakarkiguten guziaz esker bereziak ematea erabaki du.